

LITERATURA UNIBERTSALA



AHMADOU KOUROUMA

Independentzien eguzkiak

Aiora Jaka Irizar

Ahmadou Kourouma

Independentzien eguzkiak

Aiora Jaka Irizar

Itzultzailea

Jatorrizko izenburua eta urtea:
Les soleils des indépendances

1. argitalpena: 2023ko azaroan.

© Éditions du Seuil, 1970

© Azaleko margolanarena: 2023, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2023, Aiora Jaka Irizar

© Hitzaurrearena: 2023, Aiora Jaka Irizar

© Argitalpen honena: 2023, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.


ISBN: 978-84-9109-873-7

LG: D 957-2023

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



AHMADOU KOUROUMA

1927-2003

HITZAURREA

Ahmadou Kourouma dugu eleberri zoragarri honen egilea, malinke etniako idazle bolikostarra, malinkeraz pentsatu eta frantsesez idazten zuen autore konprometitua. Idatzi zuen lehenengo nobela, eskuartean duzun haxe, ezin izan zuen hasieran behintzat Frantzia argitaratu, hango argitaletxei onartezina iruditu baitzitzaien Kouroumak eleberrian erabilitako frantses afrikar-kutsukoa, hizkera beltzaren esamoldez eta kalkoz josia, idatzizko frantses klasikotik erabat urrundu eta ahozko tradizio afrikarrera hurbiltzen zena. Argitaletxe frantsesen ezezkoa jasota, Montrealen argitaratu zuen liburua (Quebecen, Kanadan), 1968an, eta soilik bi urte geroago Frantzia, Seuil argitaletxearen eskutik. Argitaletxeen uzkurkeria edo mesfidantza horrek azaldu dezake beharbada liburua beste hizkuntza hegemoniko batzuetara itzulia izan arte igarotako tarte luzea: alemanezko itzulpena jatorrizkoaren argitalpenetik 10 urtera argitaratu zen, 1978an; ingelesezkoa, handik hiru urtera, 1981ean; gaztelaniazkoa, bost urte geroago, 1986an. Eta ia beste lau hamarkada geroago iritsi zaigu azkenik euskarazko itzulpena, Literatura Unibertsala lehiaketari esker.

Ahmadou Kouroumaren bizitza

Ahmadou Kourouma 1927an jaio zen, Boli Kostako Boundiali herrixkan, printze-familia musulman malinke batean. «Kourouma» izenak «gudari» esan nahi du malinkeraz, eta nobleen klasea adierazten du. Kouroumak Ginean igaro zuen haurtzaroaren zati bat, Togobala izeneko herrixkan, eleberri honetako protagonistaren jaioterrian. Zazpi urte zituela, osaba batek hartu zuen haurraren ardura, eta, hari esker, gertutik ezagutu ahal izan zituen tradizio pagano malinkeak, itzal handiko ehiztari eta aztia baitzen osaba, armak eta naturaren botereak erabiltzen oso trebea. Osaba hark Boundialiko eskolara bidali zuen lehenik, eta ondoren Korhogora eta Bingervillera. 1947an, Maliko hiriburura joan zen matematika ikastera, Bamakoko goi-eskola teknikora. Bi urte geroago, eskolatik bota zuten ikasle-mugimenduetan parte hartzeagatik, eta Boli Kostara itzuli eta soldadu sartu zen hango batailoi autonomoan. Afrikako kolonien independentzien aldeko manifestazioak erreprimitzeari uko egiteagatik, ordea, 1951n Indotxinara bidali zuten soldaduska egitera. 1955etik 1960ra, aktuario-ikasketak egin zituen Frantzian, eta Afrika beltzeko ikasleen federazioak antolatutako ekintzetan parte hartu zuen. 1961ean, Boli Kostak independentzia lortutakoan, sorterrira itzuli zen. Orduan ekin zion *Les soleils des indépendances* idazteari, baina, 1963an, Félix Houphouët-Boigny presidentearen erregimenaren aurkako konplot batean parte hartzeaz akusatuta, espetxeratu egin zuten lehenik, eta erbesteratu ondoren. Aurrerantzean,

Aljerian, Kamerunen, Togon eta Frantzian bizi izan zen, aseguruen eta bankuen alorrean lan eginez, eta ez zen Boli Kostara itzuli 1994ra arte. Frantzian hil zen, Bronen, 2003an.

Ahmadou Kouroumaren obra

Gorago aipatu bezala, 1968an argitaratu zuen bere lehenengo eleberria, *Les soleils des indépendances*, Afrikako herrialdeen independentziaren ondorioz malinke herriak bizi izan zuen krisi sozialaren parodia bikaina. Handik bi hamarkadara baino ez zuen argitaratu bere bigarren lana, *Monné, outrage et défis*, garai koloniala islatzen duen eleberria. 1999koa da, berriz, *En attendant le vote des bêtes sauvages*, diktadore afrikarren aurkako salaketa ozena, eta 2000koa, azkenik, *Allah n'est pas obligé*, Afrikako gerra zibilen eta haietan erabiltzen diren haur soldaduen inguruko istorioa. *Quand on refuse on dit non*, hil zenean idazten ari zen eleberria, 2004an argitaratu zen; Boli Kostara itzultzen den haur soldadu baten istorioa kontatzen du.

Bost eleberri horiez gain, *Tougnantigui ou le Diseur de vérité* izeneko antzezlan bat ere idatzi zuen, zeina zentsuratua izan baitzen 1972an, Boli Kostako hiriburuan zenbait antzezpen egin ondoren. 1996an berrekin zitzaien antzezpenei, eta azkenik 1998an argitaratu zen lana. Horrez gain, haurrentzako liburu batzuk ere idatzi zituen.

Afrikar literatura

Hizkuntza europarretako literatura afrikarra ikertu duten adituek hiru multzo handitan banatzen dituzte literatura horretako idazle-belaunaldiak. Honela laburbiltzen ditu Carmen Alberdik:¹

1. ERREPARAZIOAREN IDAZKETA: 1950eko hamarkadan argitaratu zuten idazle afrikarren belaunaldi hau inperioaren aurkako erreparazio-mugimendu batean kokatzen da, eta kolonizatzaileek Afrikaren eta afrikarren inguruan zabalduko kliseen aurkako erantzun moduko bat da. Gaiei zegokienez haustura nabarmena markatu zuen arren aurreko belaunaldietako idazleekin alderatuta, idazkeraren alorrean ez zen aldaketa handirik egon: idazleek Inperioari aurka egiteko erabili zuten kolonizatzaileen hizkuntza, baina ez zuten ahaleginik egin hizkera nahiz kanon estetikoa zalantzan jartzeko.
2. ITZULPEN-IDAZKETA: bigarren belaunaldia 1960ko hamarkadan idatzi zuten egileek osatzen dute, eta independentzietako literatura gisa deskribatzen da. Gaiei zegokienez, kolonialismoaren kritika indarra galtzen joan zen, eta pixkanaka herrialde post-kolonialetako erregimen berrien kritika nagusi zen. Aurreko belaunaldikoek ez bezala, garai honetako idazleek hizkera berri bat erabiltzen dute:

¹ ALBERDI, Carmen (2019): «*Les soleils des indépendances. Hybridation et défis traductologiques*», *RECIT - Revue des Enseignants et Chercheurs en Interprétariat et Traductologie* 1 (Actes du Colloque International Traduire l'Afrique), 169-189. or.

kolonizatzaileen hizkuntza bereganatuz eta ahozko transmisioan oinarritzen den tradizio narratibo eta diskurtsibo batekin nahasiz, idazle hauek kultur ondare berri baten formak eta doinuak islatzen dituzte beren idazkeran, zeina, jatorrizko testurik egon ez arren, «itzulpen» gisa definitu izan baita maiz. Idazkera transkultural eta hibrido bat da, aldi berean identitate-ikur eta subertsiorako tresna. Belaunaldi honetakoa da Ahmadou Kourouma: kolonizatzaileen hizkuntza kolonizatuz eta «malinkizatuz», hizkuntzen arteko botere-harremanak iraultzen ditu. Frantsesa, horrela, hizkuntza menperatzailea izatetik, herri-hizkuntzak eta herri-kulturak entzunarazteko tresna izatera igarotzen da.

3. ERRESISTENTZIAREN IDAZKETA: hirugarren eta laugarren belaunaldiak 1970etik aurrerakoak dira, eta erresistentziaren idazketa deiturikoa lantzen dute, bai eremu postkolonialaren barruan (eliteen ustelkeria, emakumeen eta haurren esplotazioa, haur soldaduak, hirien gainbehera eta halako gaiak jorratuz), bai diasporan (non globalizazioaren aroan mugitzen den belaunaldi transnazional, transkontinental eta transkultural batek ekarpen berriak egiten baititu belztasunaren, migrazioaren, lurraldetasunaren eta naziotasunaren inguruan). Hizkuntzari dagokionez, idazle hauek guztiz bereganatuta daukate heterogeneotasun eta hibridotasun linguistikoa, eta, identitate-ikur edo ondasuntzat jo beharrean, berebera sentitzen duten tresna gisa darabilte.

Les soleils des indépendances eta *Independentzien eguzkiak*

Aurreko sailkapenean ikusi dugunez, Kouroumak, bigarren belaunaldiko idazle afrikarrek bezala, itzulpen moduko bat eginez idazten du, malinkeraz pentsatuz eta frantsesez idatziz, eta, kolonizatzaileen hizkuntza eraldatuz, bere ama-hizkuntzaren eta ama-kulturaren elementu tradizionalak txertatuz. Honelaxe deskribatzen du Kouroumak berak eleberri honetan erabilitako hizkuntza:

Erritmo narratibo afrikarrera egokitzen dut hizkuntza [...]. Liburu hau afrikarrei zuzentzen zaie. Malinkeraz pentsatu nuen eta frantsesez idatzi, naturalizat jotzen dudan askatasun bat hartuz hizkuntza klasikoarekiko [...]. Zer egin nuen? Besterik gabe, nire izaera askatu, nire pentsamendua adierazteko zurrunegia zitzaidan hizkuntza klasiko bat itxuraldatuz. Beraz, malinkera frantsesera itzuli nuen, hizkuntza frantsesa hautsiz erritmo afrikarra berraurkitzeko eta berreraikitzeko. Estilo malinke bat sortzen ahalegindu nintzen. Malinkeraz hausnartzen nuen, eta saiatzen nintzen aurkezten nola hautematen zuen malinke batek gertaera jakin bat, nola agertzen zitzaion bere gogoan. Malinkeraz pentsatzen nuen, eta kontua zen gero malinkeraz egindako arrazoiketa intelektual hori berritzultzea, transmititzea.²

Hori dela eta, ahozkotasanaren ezaugarri diren elementuz josita ageri da eleberri honetako hizkera.

² Ahmadou Kourouma, in BADDAY, Moncef S. (1970): «Ahmadou Kourouma, écrivain africain», *L'Afrique littéraire et artistique* 10, 2-8. or.

Mawuloe Koffi Kodah³ xeheki ikertua duenez, Kouroumak etengabe erabiltzen ditu, esaterako, konparaketak eta metaforak, irakurle mendebaldarrari absurdo bezain barregarriak irudituko zaizkionak, hain zuzen ere ironia erabiltzen baitu autoreak pertsonaien ekintzen funsgabekeria salatzeke. Atsotitzak ere nonahi ageri dira narrazioan, batzuk kultura malinketik hartuak eta beste batzuk idazleak berak asmatuak. Esamoldeok herri-jakintzaren sen ona azpimarratzeko balio diote narratzaileari, eta ahozko tradizioan oinarritzen den kultura bat islatzeko. Atsotitzek zentzuzko egiak edo arau praktiko nahiz moralak adierazten dituzte. Alabaina, narratzaileak nahieran deformatzen ditu askotan herri-atsotitz horiek, edo testuinguru guztiz desegoki batean erabiltzen, edo behin eta berriz errepikatzen, eta horrek guztiak beren balio moral guztia kentzen die, eta guztiz trakets eta barregarri bihurtzen ditu.

Kouroumaren idazkera ezaugarritzen duten eta narrazioari bere kutsu ironiko edo komikoa ematen dioten beste bi elementu garrantzitsu interferentzia linguistikoak eta akats gramatikalak dira. Malinkera kalkatuz eta frantses estandarra behartuz, aditz trantsitibo batzuk, esaterako, modu intrantsitiboan erabiltzen ditu Kouroumak, eta alderantziz. Edota frantsesez ez daukaten zentzua ematen die hitz batzuei. Azkenik,

³ MAWULOE KOFFI, Kodah (2014): «Réflexions critiques sur le comique d'expression langagière dans Les Soleils des Indépendances et Allah n'est pas obligé d'Ahmadou Kourouma», *International Journal of Humanities and Social Science Invention* 3 (6), 12-26. or.

hizkera malinketik kalkatutako arrunkeriak ere ugariak dira testuan zehar, guztiak ere istorioari kutsu barregarri hori eranstera bideratuak.

Nahita desitxuratutako hizkera bat beste hizkuntza batera itzultzea ez da edonolako erronka. Zer egin frantses estandarrean agramatikaltzat jotzen diren erabilerekin? Euskaraz ere zuzena ez den modu batean eman? Ala dena leundu eta euskara estandarrera ekarri? Itzulpenean erdibideko zerbait egiten ahalegindu naiz. Zenbait interferentzia ezabatu egin behar izan ditut, euskaraz ulergaitzak eta zentzugabeak gertatuko ziratekeelako, baina beste batzuetan ahalegindu naiz kutsu malinke horri eusten, euskaraz harrigarri samarrak suerta litezkeen ordainak emanez. Esate baterako, malinkeraren sintaxia islatu nahi izan dut «dolua eseri», «otoitza makurtu», «sakrifizioak hil» eta antzeko espresioetan, eta «bastartkeria bastarta» arrunkeria kalkatu dut malinkeraz oso ohikoa den eta protagonistaren ahotan behin eta berriz ageri den esamolde trauskila itzultzeko. «Eguzki» eta «akabatu» hitzak ere beren malinkerazko zentzuan erabili ditut. Lehena, Lurra berotzen duen argizagia izendatzeko ez ezik, «egun», «garai» edo «aldi» adieran ere baliatzen da. Eta bigarrenak, zerbait bukatu dela adierazteaz gain, norbait hil dela ere esan nahi du malinkeraz, eleberriko lehenengo esaldian ikus daitekeen bezala: «Astebete lehenago akabatu zen hiriburuan Koné Ibrahima...».

Luze jo lezake Kouroumaren hizkera aberatsaren azterketak, baita halakoak euskaratzeko modu onenaren inguruko eztabaidak ere, baina, nonbait bukatu

behar, eta hementxe utziko dut hitzaurretxo hau. Ez nuke amaitu nahi, ordea, Idoia Santamariari nire esker ona adierazi gabe, pozik onartu baitzuen nire itzulpena goitik behera irakurtzea eta testua hobetze-ko proposamenak egitea. Milesker bihotz-bihotzez, Idoia. Eta eskerrik asko, halaber, Lander Majuelori, itzulpen-lanak iraun duen hilabeteetan eskainitako laguntzagatik, egindako iruzkinengatik eta emandako aholku eta animoengatik.

Eta orain bai. Orain atseginez gonbidatzen zaitut Kouroumaren unibertso malinkean barneratzera, eta berarekin batera haserretzera, asaldatzera, amestera eta barrez lehertzera. On degizula!

Aiora Jaka Irizar

Ahmadou Kourouma

Independentzien eguzkiak

LEHENENGO ZATIA

*Alanoaren esertzeko
manera lotsagaldua*

Astebete lehenago akabatu zen hiriburuan Koné Ibrahimia, malinke¹ arrazakoa. Edo, derragun malinke-raz: gizajoak ez zuen marranta txiki bat gainditu...

Malinke orori gertatzen zaion gisan, bizitza Ibrahimaren gorputik itzuri zenean, haren itzala altxatu egin zen, eta, eztarria garbitu eta jantzi ondoren, bide luzean aurrera abiatu zen bere sorterri malinke urrunera, hiletaren albiste zoritxarrekoa zabaltzera. Sabana hutsaren erdian galduriko bideetan, bi txerpolarari malinkek topatu zuten itzala, baita ezagutu ere. Itzala bizkor zihohan, eta ez zituen agurtu. Txerpolaria ez ziren tronpatu: «Akabo Ibrahimia», pentsatu zuten. Jaioterrian, itzalak bere ondasunak mugitu eta antolatu zituen. Etxolaren atzetik, argi entzun ziren defuntuaren kutxen klaskak, kalabazako ontzien igurtziak, bai eta abereen asaldura eta marrakak ere. Inor ez zen tronpatu. «Akabo Ibrahimia Koné; horra hor itzala», pentsatu zuten denek. Itzala hiriburura

¹ malinke: Mali, Senegal, Ginea, Boli Kosta eta Gambian bizi den talde etnikoa. Malinkeraz mintzatzen dira [Itzultzailearen oharra. Liburuan ageri diren gainerako oin-oharrak ere itzultzailearenak dira].

itzuli zen, gorpuaren ondora, hiletak ikustera: bi mila kilometrotik gorako joan-etorria. Begi-kliska batean!

Sinesgogor dirudizue! Bada, nik zin degizuet, eta hauxe gaineratzen: defuntua errementari kastakoa balitz, ez bageunde Independentzien aroan (Independentzien eguzkietan, diote malinkeek), zin degizuet, ez genuke sekula lurralde urrun eta arrotz batean ehortziko. Sorterritik, errementari kastako agure bat etorriko zen makila txiki batekin hilotza jotzera; itzala gorpuan sartuko zen berriro, eta hildakoa jaiki. Makila hildakoari ematean, hura oinez hasiko zen agurearen ondoan, eta gau eta egun ibiliko ziren biak elkarrekin. Baina, adi!, defuntua berpiztu gabe! Bizitza Alaren esku dago soilik! Eta jan gabe, edan gabe, mintzatu gabe, are lorik egin gabe, defuntuak atzetik jarraituko zion, oinez joango zen jaioterriraino, non errementari zaharrak makilaz joko baitzuen berriz. Gorpua eta itzala berriro bereiziko ziren, eta jaioterrian bertan antolatuko ziren errementari kastako malinke bati dagozkion hileta ugari eta ka-tramilatsuegiak.

Beraz, segur aski, eta are guztiz ziur, itzalak benetan ibili zuen jaioterrirainoko bidea. Berehala itzuli zen hiriburura hiletak zuzentzera, eta, han, segizioko azti batek hilkutxaren gainean eserita ikusi zuen, goibel. Igaro ziren zazpi egun ehorzketaren egunetik, eta zazpigarren eguneko hiletak itzalaren aurrean egin ziren, eta igaro ziren asteak harik eta berrogeigarren eguna iritsi zen arte, eta berrogeigarren eguneko hiletak itzal makurtuaren aurrean ospatu ziren, zeina ikusezina

baitzen beti malinke arruntarentzat. Eta gero betiko partitu zen. Oinez joan zen lurralde malinkerraino, eta han haurtxo malinke batean berraragitu zen, amaren baten zorionerako.

Itzalak den-dena zaintzen, kontatzen eta esker-tzen zuenez, lur-ematea behar bezala gauzatu zen, hiletak oparotasunez santutu ziren. Lagunek, senideek eta besterik gabe hantxe aurkitzen zirenek ofrendak eta sakrifizioak utzi zituzten, eta dena banatu zen etorritakoen eta hiriburuko familia malinke handien artean.

Hileta-ospakizun oro errentagarri denez, ulertze-koa da griot² malinkeek, malinke zaharrek, Independentzien erruz erreka jo ondoren saltzeari utzi behar izan diotenek (eta Alak daki zenbat eta zenbat diren Independentzien erruz hiriburuan erreka jo duten merkatari zaharrak!), denek «lan egitea» lur-emate eta hiletetan. Zinezko profesionalak! Goiz eta arrats, auzoz auzo ibiltzen dira zeremonia guztietan parte hartzen. Malinkeek, arras gaiztoki, «putreak» deitzen diete, edo «hiena-saltoa».

Fama Doumbouya (doubouyatar peto-petoa, doubouyatarra aitaren nahiz amaren aldetik, Horodougouko doubouyatar printzeen azkeneko eta legezko ondorengoa, pantera-totema) «putre» bat zen. Printze doubouyatar bat! Hienen artean ibili ohi zen pantera-totema. Ai! Independentzien eguzkiak!

² griot: Mendebaldeko Afrikako kontalaria, herriaren oroimena biltzeaz eta ahozko tradizioa belaunaldiz belaunaldi pasatzeaz arduratzen den koblakari modukoa.

Koné Ibrahimia zenaren zazpigarren eguneko hiletan, Fama berandu zebilen. Presaka zihoan, kakeriak jotako gaixoaren ibilera arinaz. Hiri zuria auzo beltzarekin lotzen duen zubiaren beste muturrera iritsia zela, bigarren otoitza entzun zuen: hasia zen zeremonia.

–Bastartkeria bastarta! Gnamokodé! –oihukatzen zuen Famak.

Eta bere onetik ateratzen zuen denak. Eguzkia! Eguzkia! Hortxe Independentzia galgarrien eguzkia, zeruaren alde oso bat betetzen, kiskaltzen, unibertsoa egarritzen, zertarako eta arratseko ekaitz madarikatuak zuritzeko. Eta hortxe begiluzeak! Hortxe begiluze bastartak, espaloiaeren erdi-erdian geldi, beren aitaren etxean bezala. Bultzatu, mehatxatu, iraindu egin behar aurrera joateko. Eta, hori guztia inguratuz, belarriak birrintzerainoko zalaparta: klaxonak, motorren tarrapatak, gurpilen laprastadak, oinezkoen eta gidarien garrasi eta heiagorak. Zubiaren ezkerreko petriletik, aintzirako ispilu ugariak begiak itsutzen zituzten, eta etengabe hausten eta elkartzen ziren ur-bazter urruneraino, non uhartexka eta baso-ertzak zeru-muga hauskaran barneratzen baitziren. Zubia, alderik alde, gora eta behera zebiltzan ibilgailu koloretsuz mukuruz zegoen. Eskuineko petrilaren atzean, aintzira berriro: dirdiratsua oraindik puntu batzuetan, lateritazkoa beste batzuetan. Gero, portua, itsasontziz eta biltegiz betea; eta urrutiago aintzira berriro, oraingoan lateritazkoa, eta baso-ertza, eta azkenean urdin pusketa bat: itsasoa, ostertzaren urdinari hasiera ematen. Eskerrak! Goretsia bedi Ala! Famak ez zuen askoz gehiago ibili

beharrik: hantxe begiztatzen zen portuaren amaiera, errepeidea aldapan behera galtzen zen sakonune batean, non pilatzen baitziren beste biltegi batzuen xaflazko teilatu distiratsu edo grisak, palmondoak, hostailak; non altxatzen baitziren zenbait solairuko bizpahiru etxe, leiho saretadun eta guzti. Umiliazio eta lotsaizun ikaragarria zen Fama hileta batzuetarantz halako presaz lasterka ikustea, pantera zaharra sarraskia eskuratze-ko lehian hienen aurka borrokan atzematea bezain ahalkegarria.

Nor eta bera, Fama, urre, janari, ohore eta emakume artean jaioa! Urrea ororen gainetik maitatzeko hezia, jakirik onenak hautatzeko prestatua, ehun emazteren artean gogokoenarekin oheratzeko hazia! Zer bilakatuko, eta sarraskijale...

Hiena bat zen, hiena presatu bat. Zeruak altu eta urrun jarraitzen zuen, itsasaldean izan ezik, non hodei bakarti eta lotsagabe batzuk aztoratzen eta elkarrengana hurbiltzen hasiak baitziren ekaitza osatzeko. Bastartak! Asaldagarriak, nardagarriak, lurralde honetako urtaro-arteak, eguzkia eta euria nahasten hain zaleak.

Bira hartu zuen lorategi baten ondoren, gorantz jo zuen funtzionarioen auzoko etorbide nagusian. Goretsia bedi Ala! Hantxe zen, bai. Fama berandu zertorren, ordea. Lastima, atzerapenaren ondorioz aurrez aurre eta oso publikoki jasan beharko baitzituen han bildurikoen sumin eta laidoak, suge bat hankartean baino deserosoagoak. Ezin eseri, ezin zutik egon, ezin ibili, ezin etzan.